

# ESKLABOTZAREN ONURADUNAK



Igori - Bidankoze arteko errepidea

Bortxazko lanen sarearen etekinak ez ziren makalak izan, nahiz eta oraindik erabat ikertuak ez egon.

Hasteko, enpresa asko Lanaren Bidez Zigorra Berrerosteko Sistemari esker presoan lanaz baliatu ziren, oso lan-esku merkea zitzaielakoz. Horren adibideak meatzaritza edo eraikuntza enpresak ditugu, horien artean Banús edota Huarte y Cía., azken hau nafarra. Gainera, zenbait lurjabe handiek holako eskulana erabili zuten beren latifundioak ureztatze lur bihurtzeko, oso prezio baxuak ordainduz.

Bestalde, Langile Batailoeiek zein BDSTek eginiko lan publikoei esker, erakunde publikoek hainbat azpiegitura martxan jarri ahal izan zuten, horietako batzuk zenbait eskualdetako garapenerako lagungarri izanik.

Batailoi hauen ofizialek ere ez zuten aberasteko aukera galdu, prisioneroentzat ziren elikagaiak merkatu beltzean saltzen baitzituzten.

... de la República de Chile, el Sr. Pedro ...  
 ... de la República de Chile, el Sr. Pedro ...  
 ... de la República de Chile, el Sr. Pedro ...

Errepideek Pirinioetako herrietan eraginiko onurak  
 Iturria: Estaciones Oyarzun, C. 22

## Testigantza




**Luis Ortiz Alfau**  
 (BDST 38, Bilbo)

Komandante Erronkarin genuen. Guk telefono bat genuen, biradera eta klabea zituena, eta ahotsa ez zen ongi desberdintzen, edozeinek hitz egiten ahal baitzuen nor zen jakin gabe. Eta Anuncio hori putazalea zenez, eta noiznahi Iruñera joaten zenez, batzuetan komandanteak deitzen zuten eta " ea ba, Anuncio jar dadila", eta nik bere bila joaten nintzela disimulatu behar nuen eta "ba, nire komandantea...", nik hori egin behar nuen, alproja halakoa, diru guztia gastatzen zuten eta!



BDST 38 an izandako estelakerari eta elkarlari buruko informazio  
 Iturria: Archivo General Militar de Añón, CGO, C. 207, Cp. 168, I. N. C. M., M. de Defensa



Mestegi enpresak Prisioneroen Kontzentrazio Eremen kuskartzari eginiko diru aiantza  
 Iturria: Archivo General Militar de Añón, CGO, C. 230, L. 58, Cp. 8, I. N. C. M., M. de Defensa



## ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

### 3. Alanbradaz haratago